

# GAUZAK ERAKARTZEKO UKENDUA

## OSAGAIK

- Hartz baten bi ile
- Pertsona baten begia
- Zeruan dagoen hodei baten zatia
- Txerriaren gonbitua
- Dinosaurio baten burmuina
- 8 mililitro kea

## UKENDUA NOLA EGIN

Apirilaren batean, goizeko hamaiketan, hartz bati bi ile kendu behar dizkiozu. Hurrengo egunean hauek txikitu, hauts bihurtu arte. Aste bat igaro ondoren, laborategi batetik pertsona baten begia ostu. Hori egiteagatik, zuri maldizio bat ez sartzeko, hitz hauek esan behar dituzu:

Barkatu, barkatu  
betiko bukatu.

Begia eta ileak pote batean gorde eta hozkailuan sartu behar dituzu. Bi ordu igarotzen direnean irabiagailu batekin irabiatu eta potea hozkailuan utzi. Hiru egun barru, zikoin bati esan behar diozu hodei baten zati bat moztu eta ekartzeko. Etxean daukazunean, kutxa batean gorde. Ondoren baserri batera joan eta txerri baten gonbitua hartu behar duzu. Hurrengo egunean hodei zatia eta gomitoa beste gauzekin nahaztuko dituzu.

Bi hilabete pasa ondoren, hildako dinosaurio bati burmuina kendu eta zortzi mililitro kearekin elkartu. Dena ( osagai guztiak ) lapiko batean sartu. Burmuina txikitu ondoren likido dentso bat izango duzu. Leku hotz batean gorde eta, urte baten ondoren, hartzeko prest izango duzu.

## UKENDUA NOLA ERABILI

Dutxan zaudela xaboia buruan eman. Ondoren, prestatutako likido dentsoa gainetik bota. Lortutako nahasketari ur piska bat gehitu. Zure ile guztia hartu, motots bat bezala jarri, eta isuri behar duzu. Erortzen den likidoa edan eta honekin hitz hauek esan :

Behatz pitin  
kasu egin  
eta erakarri  
dena gorri.

Bi ordu barru hatz batean gauzak erakartzeko ahalmena izango duzu.

**JAIONE ABAURREA**